



PROGRAMA

Tokiko gobernuen zuzendaritza ekonomiko- finantzarioa

Ekonomiaren eta finantzen krisiak bete-betean harrapatu ditu Europar Batasuneko hainbat herrialde, eta, jakina, herrietako finantzak ere jo ditu. Egoera honetan, badira bi gauza derrigor egin beharrekoak: baliabide publikoak eragimenez kudeatu; eta aurrekontuen egonkortasuna eta finantzen sostengarritasuna erdietsi.

Euskal toki-erakundeek, orain arte, asmatu dute ekonomia eta finantzak txukun kudeatzen, eta, lantegi horretan, aurrekontuen oreka eraikinaren egonaria dela esango genuke, edo, nahi izatera, euskal toki-erakundeen indargarri bat. Herritarrei zerbitzurik eskainiko badiegu, edo euskal udalek gaur egun eskaintzen duten zerbitzu-kartera sostengarria izango bada, gakoa, hain zuzen ere, ekonomia eta finantzak kudeatzeko orduan zuzen, arduraz, garbi eta neurritz jokatu izana da. Hori horrela izanik, eta tokiko gobernuen ekonomia eta finantzak zuzentzeko lanak gaitzat hartuta, programa berezi hau eskaintzera gatozkizue. Helburua garbi dago: euskal udaletan ekonomiaren eta finantzen kudeaketan zuzendari-lanak edo teknikari-lanak egiten dituztenei indargarri bat eskaintzea, hain justu zuzendari-gaitasunetarako eta gaitasun

tekniko-profesionalerako. Arlo horretako profesionalak sozializazio-leku bat eskaini nahi diegu; kontzeptuen aldetik, hobeto lan egiteko tresna eguneratuak eskaini nahi dizkiegu; eta, azken batean, arlo honetan landuta dituzten gaitasun profesionalak hobeto garatzen lagundu nahi diegu, hartara, lan egiten duten erakundeari eta, bidez batez, herritarri berari zerbitzu hobea eman diezaioten. Garbi dago denbora luzean aurrekontuei beren horretan eusten jarraitu beharko dugula, eta, halakoetan, oso garrantzitsua da informazio zuzena eta fidagarria edukitzea, jakiteko ea zer aldatzen eta berritzen ari diren bateko eta besteko herri-erakundeak, aldaketa asko egiten ari baitira. Arlo honetan, momentu honetan, aldaketak etengabeak dira, eta, ziurrenera, denbora-tarte batean ere hala izango dira, eta programa honetan aldaketa horiek denak jorrazteko asmoa daukagu. Laburbilduz, EUDEL-en eta IVAP-en, ondotxo dakigu, ekonomiaren eta finantzen arloan, zuzendariek eta funtzionarioek beren lana zuzen egiteak garrantzi handia duela euskal toki-erakundeen politikarako eta kudeaketarako, eta, horregatik, duela sei hilabete, tokiko zuzendarientzako eta goi-funtzionarioentzako prestakuntza-bide bat zabaldu genuen, eta, bide horretan, orain, programa hau eskaini nahi dugu.

PROGRAMA

LEHENENGO SAIOA: Otsailaren 1ean, ostirala

“Udalean ekonomia eta finantzak kudeatzen dituen zuzendariaren edo arduradunaren gaitasunak”

Hizlaria: Rafael Jiménez Asensio. Estudi.com

BIGARREN SAIOA: Otsailaren 15ean, ostirala

“Aurrekontu Egonkortasunerako Lege Organikoa bera eta ea, Ekonomia Ituna gogoan, nola aplikatu behar den euskal udaletan”.

Hizlaria: Carlos Urgoiti. Bilboko Udala.

HIRUGARREN SAIOA: Martxoaren 1ean, ostirala

“Udal-aurrekontua udal-politika egiteko tresna”

Hizlaria: Carlos Vivas. Bartzelonako Udala.

LAUGARREN SAIOA: Martxoaren 15ean, ostirala

“Udal-aurrekontuak eta ekonomiaren eta aurrekontuen kudeaketa”

Hizlaria: Jesús Albóniga. Bilboko Udala

BOSGARREN SAIOA: Apirilaren 5ean, ostirala

“Finantzen kudeaketa eta Diruzaintza. Zorpetze sostengarria da helburua”

Hizlaria: Alfredo Barrio. Vitoria-Gasteizko Udala

SEIGARREN SAIOA: Apirilaren 19an, ostirala

“Udalaren interbentzioa. Kontrol ekonomiko finantzarioa.

“Iritsi dira aurrekontu-oreka eta lan-erreforma.

Defini dezagun, atzera, interbentzioaren zertarakoa”.

Hizlaria: Jesús Albóniga. Bilboko Udala.

ZAZPIGARREN SAIOA: Maiatzaren 3an, ostirala

“Zergak kudeatzea eta biltzea”

Hizlaria: Alfredo Barrio. Vitoria-Gasteizko Udala

ZORTZIGARREN SAIOA: Maiatzaren 17an, ostirala

“Eragimena udalen gastu publikoan”

Hizlaria: Iñaki Elzaurdi. Prospektiker.

BALDINTZA OROKORRAK

SAIOEN TOKI ETA ORDUTEGIA

IVAPek, Donostiako egoitzan, San Bartolome, 28 kalean dituen geletan izango dira saioak. Goizez izango dira 09:00-14:00 bitartean, eta programan adierazitako datetan.

40 orduko Programa da eta kopuru hori adieraziko da lortuko den ziurtagirian.

HARTZAILEAK

- Kudeaketa ekonomiko, finantza, aurrekontuen eta zerga-bilketen zuzendari eta arduradunak.
- Kontu-hartze eta diruzaintzan lana egiten duten eta Estatuko gaikuntza duten funtzionarioak.
- A lan-taldeko ekonomi eta finantzen kudeaketan lana egiten duten teknikariak.
- Salbuespen bezala, eta beti ere tokiren bat libre balego, parte hartu dezakete udaletako Alkate eta Ogasuneko arduradun diren Zinegotziak.

Gehenez ere hogeita bost (25) lagunek eman ahalko izango dute izena. Izena eman dutenak gehiago izanez gero, hautaketa-prozesua gauzatuko dugu.

IZENA EMATEA ETA MATRIKULA

Programan izena emateko beharrezkoa izango da "Prestakuntzarako eskaera" orria betetzea, eta IVAPera fax bitartez bidaltzea. Fax zenbakia honakoa da: 94 403 16 01

Izena emateko epea 2013ko urtarrilaren 25ean amaituko da.

Programaren prezioa 300 eurokoa da (8 saioak bateratzen ditu). Behin eskaera egin eta gero, IVAPek dagokion erakundera faktura bidaliko du.

ZIURTAGIRIA

Programaren ziurtagiria lortu ahal izateko beharrezkoa izango da:

- Programaren gutxienezko %80ra bertaratzea
- Memoria-lan bat egitea. Lanaren funtsak hobekuntza bat, arazo baten analisia edo hobekuntza igurikimen bat jorratu beharko du. Lana entregatzeko, Programaren azken saioa eta gero, aste baten epea egongo da. Lanaren ebaluaketa bat egongo da.

SAIOAK

Programa hasi baino aste bat lehenago, IVAPek ikastaroaren hasiera gogorarazteko posta elektronikoki bati gorriko du. Gogorarazpen honek balioko du baita ere, onartuak izan diren pertsonak konfirmatzeko.

Donostia-San Sebastian 1
01010 Vitoria-Gasteiz
Telf.: 945 01 76 00
Fax: 945 01 76 02
ivap@ivap.es

Errekalde zumarkalea 18
48009 Bilbao
Tlf.: 94 403 16 00
Fax: 94 403 16 01
evetu@ivap.es

San Bartolome, 28
20006 Donostia
Tlf.: 943 42 83 06
Fax: 943 42 59 03

Unibertsitateko etorbidea
20560 Oñati
Tlf.: 943 78 20 00
Fax: 943 78 31 77



2 0 1 2